



DIRU SARRERAK

Gure enpresak plaka estandar batzuk eskainiko ditu, eta, horrez gain, leku zehatzetarako plakak diseinatzeko aukera ere izango dute kontsumitzaileek. Diseinu estandarrak 500€-an salduko ditugu, eta pertsonalizatutako plaka bakoitza 700€-an.

Hilabete batean 60 plaka inguru saltzeko gai izango garela kalkulatu dugu. Hasieran, eskari handiagoa izango genuela uste genuen, baina beste energia berriztagarrien egoera aztertuz, gure itxaropenak jaitsi genituen eta errealitatera egokitu ginen.

Abuztuan lanik ez egitea adostu dugu, eta hil horretan enpresa itxita egongo da.

Kostuak eta irabaziak kontuan hartuta, urte amaieran 2.500€-ko irabazia lortuko dugula espero dugu.

Uztaila izango da gure hilabeterik onena, 34.000€-ko diru sarrerekin. Eta gure hilabeterik okerrenea, abuztua salbuespen, urria izango da, 10.700€-ko diru sarrerekin.